


SAN ROKE

JAIK 2026



DEBA
ABUZTUAK 14-18



Urtero bezala, abuztuaren erdialdean, gure herria kolorez, musikaz, tradizioz eta alaitasunez jantziko da berriz. Egun hauetan kaleak topagune bihurtzen dira; bertan, belaunaldi ezberdinak elkartzen gara, besarkadak, irribarreak eta une bereziak partekatzeko. Orduan agertzen da indar handienarekin Debaren izaera: herri irekia, parte-hartzailea eta bizia, denon artean eraikitzen duguna.

Aurtengo jaiei hasiera emango dien txapligua Juan Carlos Sillerok botako du. Aitortza eder eta guztiz merezia da, Amaiak Bat taldean urte luzez egindako lan nekaezinagatik eta Debarekiko erakutsi duen konpromisoagatik. Izan ere, herri bat ez dira bere eraikin eta kaleak soilik; herri-tarren eskuzabaltasunak, isilpeko lanak eta eguneroko konpromisoak egiten dute benetan handi. Juan Carlos bezalako pertsonak herria aberastu, indartu eta bihotzez zaintzen dute. Eskerrik beroenak Debari eman dizun guztiagatik.

Jaiak herri baten ispilu dira. Gure ohiturak eta ondarea bizirik mantentzeko aukera ematen digute, baina baita belaunaldi berriei lekukoa emateko eta etorkizunari ilusioz begiratzeko aukera ere. Horregatik, aurtengo urtean poz berezia ematen digu Umeen Eguneako entzierroa berreskuratzeak. Haur askok eta haien familiek berriro ere hain maitea dugun tradizio horretaz gozatzeko aukera izango dute, segurtasuna, ilusioa eta jai-giro aparta uztartuz. Ziur gaude oroitzapen eder ugari sortuko direla une horietan.

Aurtengo San Rokeek badute beste ospakizun berezi bat ere: Pablo Sorozabalek Debako herriari oparitutako Debako Martxaren 70. urteurrena. Zazpi hamarkadatan zehar, gure herriaren soinu-banda bihurtu den doinu horrek belaunaldi ugari elkartu ditu sentimendu beraren inguruan. Jaiak hasten diren bakoitzean eta edonon gaudela ere martxaren lehen notak entzutearekin batera, bihotzak taupada berezia egiten du; une horrek gogorazten digu musikak herri baten memoria, nortasuna eta emozioak bizirik mantentzeko duen indar aparta. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko urte hauetan guztietan Debako Martxa bizirik mantendu duzuen guztioi.

Nire esker ona adierazi nahi dizuet jai hauek posible egiten dituzuen pertsona, elkarte eta eragile guztiei: boluntarioei, udal langileei, kultura eta kirol taldeei, musikariei, segurtasun eta larrialdi zerbitzuei, ostalariei eta, oro har, zuen denbora, ilusioa eta lana eskuzabal partekatzen duzuen guztioi. Zuei esker, urtez urte, San Rokeak bereziagoak dira.

Azkenik, gonbidapen bat egin nahi dizuet: bizi ditzagun jai hauek askatasunez, errespetuz eta arduraz. Goza dezagun elkarrekin, zaindu ditzagun gure kaleak, gure ingurua eta, batez ere, zaindu dezagun elkar. Egin ditzagun San Roke hauek irribarrez, adiskidetasunez eta oroitzapen ederrez betetako jaiak, denon bihotzean luzaroan bizirik iraungo dutenak.



Como cada año, a mediados de agosto, nuestro pueblo volverá a llenarse de color, música, tradición y alegría. Son días en los que las calles se convierten en punto de encuentro, donde personas de todas las edades compartimos abrazos, sonrisas y momentos inolvidables. Es entonces cuando el carácter abierto, participativo y acogedor de Deba brilla con más fuerza que nunca y nos recuerda el orgullo de pertenecer a este pueblo.

El chupinazo que dará comienzo a las fiestas de este año correrá a cargo de Juan

Carlos Sillero. Es un reconocimiento tan merecido como sentido por su dedicación durante tantos años al Amaiak Bat y por el compromiso que siempre ha demostrado con Deba. Porque un pueblo no se construye solo con sus calles o sus edificios, sino con las personas que, desde la generosidad y muchas veces desde el anonimato, trabajan cada día para hacerlo mejor. Personas como Juan Carlos enriquecen nuestra comunidad y nos hacen sentir orgullosos de quienes somos. Gracias de corazón por todo lo que has dado a Deba.

Las fiestas son el reflejo de un pueblo. En ellas mantenemos vivas nuestras tradiciones y nuestro patrimonio, pero también tenemos la oportunidad de transmitir ese legado a las nuevas generaciones y de seguir mirando al futuro con ilusión. Por eso, este año nos llena de alegría recuperar el encierro del Día del Niño. Muchos niños y niñas, junto a sus familias, volverán a disfrutar de una tradición muy querida, en un ambiente donde la seguridad, la ilusión y la alegría caminarán de la mano. Sin duda, será una ocasión para crear recuerdos que perdurarán en el tiempo.

Las fiestas de San Roke de este año cuentan, además, con otra celebración muy especial: el 70º aniversario de la Marcha de Deba que Pablo Sorozabal regaló al pueblo de Deba. Durante siete décadas, esta melodía se ha convertido en la banda sonora de nuestro pueblo y ha acompañado a generaciones enteras en algunos de sus momentos más felices. Cada vez que comienzan las fiestas y suenan sus primeras notas, cada vez que oímos sus primeras notas, estamos donde estamos, sentimos una emoción difícil de explicar, porque la música tiene el poder de conservar la memoria, la identidad y el alma de un pueblo. Mi más sincero agradecimiento a todas las personas que habéis mantenido viva la Marcha de Deba durante todos estos años.

Quiero expresar también mi más profundo agradecimiento a todas las personas, asociaciones y colectivos que hacen posibles estas fiestas: al voluntariado, al personal municipal, a los grupos culturales y deportivos, a músicos y músicas, a los servicios de seguridad y emergencias, a la hostelería y, en definitiva, a todas las personas que, con vuestro trabajo, vuestra ilusión y vuestro compromiso, hacéis que las fiestas de San Roke sean cada año un poco más especiales.

Por último, quiero invitaros a vivir estas fiestas con libertad, respeto y responsabilidad. Disfrutemos juntos de cada momento, cuidemos nuestras calles, nuestro entorno y, sobre todo, cuidémonos unos a otros. Hagamos de estos San Rokes unas fiestas llenas de alegría, convivencia y recuerdos que permanezcan para siempre en nuestro corazón.

Gora San Roke!!! Gora Deba!!!

Alkatea

Alazne Txurruka Allika

GOGORATU!! - ¡RECUERDA!

- **16 urtetik beherakoek ezin izango dute parte hartu enbolatuetan.**
Los menores de 16 años no podrán participar en los embolados.
- **18 urtetik beherakoek ezin izango dute parte hartu zekorren entzierroetan.**
Los menores de 18 años no podrán participar en los encierros de novillos.
- **Agintariak eta atezainek emandako aginduak eta aholkuak bete behar dira.**
Se deberán cumplir las órdenes y recomendaciones de las autoridades y porteros.
- **Debekatuta dago zezenei kalte egitea.**
Se prohíbe dañar a los toros.
- **Plazak aforo mugatua du.**
El aforo de la plaza es limitado.

8-16 URTE BITARTEKO UMEEN ENTZIERROA ETA ENBOLATUEN OHARRAK

Observaciones sobre los encierros y los embolados para menores de 8 a 16 años

- **16 urtetik beherakoek bakarrik parte har dezakete modu aktiboan.**
Sólo los menores de 16 años pueden participar de forma activa.
- **14 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute.**
Los menores de 14 años deberán ir acompañados de un adulto.
- **8 urtetik beherakoek debekatuta dute parte hartzea.**
Los menores de 8 años tienen prohibida la participación.



Txapleroak noiz botako dira

Días en los que se lanzarán cohetes:

- Abuztuak **13**: 18:00
- Abuztuak **14**: 18:00
- Abuztuak **15**: 10:00
- Abuztuak **16**: 08:00
- Abuztuak **17**: 18:00
- Abuztuak **18**: 08:00

Su festen egunak

Días en los que se lanzarán fuegos artificiales:

- Abuztuak **16**: 23:00.
- Abuztuak **17**: 23:00.




Eraso matxista, LGBTIfobiko, xenofobo eta arrazisten aurrean **ARDURA HARTU eta EZ ZAITEZ KONPLIZE IZAN!**

Jaietan ERE ez da inolaz ere eraso sexista, LGBTIfobiko, xenofobo edota arrazistarik onartuko

Indarkeria matxista ez da soilik eraso fisikoa edo bortxaketa. Onartu gabeko musuak, onartu gabeko ukituak, plasta jartzea, norbaiti sexua izateko xantaia egitea... indarkeria matxistaren adierazpenak dira baita ere.

Debako jaietan ere **aske** izan nahi dugu:

- Ez beti da ez.
- Ezetz esateko modu desberdinak daude: "Lagunekin joan nahi dut", "Ez dut jarraitu nahi"... gorputzarekin ere adierazi daiteke.
- Ez zaitez baboso edo astuna izan.
- Jaiak harreman berriak sortzeko eszenatoki izan daitezke, baina inplikaturako pertsona guztiek **ONARTU** behar dute harreman hori.
- Emakumeek* jaiak nahi duten moduan ospatu eta gozatzeko eskubidea dute. Haien janzkerak edota jaietaz gozatzeko moduak ez dute inolaz ere erasorik justifikatzen.
- Erasoaren erantzukizuna erasotzailearena da beti.



Debako **San Roke jaiak** pertsona guztientzako espazioak izan behar dira, indarkeriarik gabekoak eta berdintasunean oinarrituak.

Sexu-bizi babesgunea

Abuztuaren 15eko gauean • 23:00-02:00 Zumardi parean, Lersundi kalean

Larrialdietarako telefonoak: **112** • Udaltzaingoa: **689 125 889** • SATEVI: **900 840 111**

eraso matxistarik gabeko jaien aldeko dekalogoa

**BELDUR
BARIK
#JARRERA
2026**

Informazio gehiago nahi
izanez gero, kontsultatu
gida osoa hemen:



Larrialdiak **112**
SATEVI 24h **900840111**
Udaltzaingoa **689 125 889**

Soilik
BAI da BAI!

1. Denon ardura da jaiak askatasunean eta beldur barik gozatzeko eskubidea bermatzen duten jaiguneak eraikitzea.
2. Jokabide matxistak ikusten badituzu, gaitzetsi publikoki, argi uzteko jaiak ez duela inondik ere justifikatzen emakumeen askatasuna mugatzen duen jokabiderik.
3. Erasoa jasan duen norbaitek laguntza eskatzen badizu, entzuniezazozu, ez ezazu bakarrik utzi eta ez epaitu; galdetu zerbitzuren batera deitu edo beste urratsen bat eman aurretik. Gogoan izan: ozken erabakia berea da.
4. Arrisku-egoeraren batean bazaude edo arriskua sortzeaz dagoela ikusten baduzu, deitu 112 SOS DEIAKera.
5. Gogoratu: soilik bai da bai, eta norbaitekin deserosa bazaude, egin nahi ez duzun zerbait egitera behartuta bazaude edo zure hitza ez bada errespetatzen, eskubide osoa duzu aski da esateko eta ez jarraitzeko.
6. Erasoa egin badizute, gogoratu erasoaren ardura erasotzailearena dela, eta ez zurea. Ez duzu lotsarik sentitu behar kontatzeko eta laguntza eskatzeko. Ez duzu errudun sentitu behar edonda edo drogatuta egoteagatik: gertatutakoa ez da zure errua.
7. Sexu-eraso bat jasan baduzu, gogora ezazu: garbitzen edo arropaz aldatzen bazara, frogak ezaba ditzakezu.
8. Erasoa egin badizute, hona del dezakezu: Indarkeriaren biktime diren emakumeei eguneko 24 orduetan telefono bidezko arreta emateko zerbitzua (SATEVI) **900 840 111**. Pertsona espezializatuek emango dizute arreta.
9. Gogoratu: lurralde bakoitzean sexu-indarkerian espezializatutako 24 orduz lan egiten duten krisi zentroak daude, eta horietara salaketa jarri gabe ere joan zaitezke, eta berdin dio eraso oraintsu edo iraganean gertatu zen.
10. Ez duzu inolako aitzakiarik: alkohola edo drogak kontsumitzeak ez zaitu errugabetzen. Erasoa beti zure ardura da.

Antolatzailea:

Bultzatzaileak:

araba/álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia diputación foral

GIPUZKOA

EUDE

DEIARU UDALA

EMAKUNDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

13
osteguna

Desenkajonamendua

18:00



Entzierrilloa

14
ostirala

Jaien *hasiera*





18:00: Kanpai errepika San Rokeri zapi gorria jarriz. Jaien hasiera. Txapligua Udaletxetik.

Repique de campanas. Comienzo de las fiestas con la colocación del pañuelo rojo a San Roke y chupinazo.

Jarraian: Kalejira, musika banda, txistulariak, Lizarrako gaiteroak, erraldoiak eta buruhandiak.

19:15: Udalbatza udaletxetik plaza Zaharrera.

Alkate Soinua Kalez-kale txistulari taldearen eskutik.

La corporación saldrá desde el Ayuntamiento hasta la plaza Zaharra acompañada por el Alkate Soinua.

19:30: Erreberentzia eta ezpata-dantza elizan, Gure-Kai dantza taldearen eskutik. Hilarion Eslavaren **Salbea**, Aitzuri Abesbatzaren eskutik. Meza nagusia, Debako Andra Mari elizan.

22:30: Danborrada, Ozio-Bide elkartearen eskutik.

01:00: Erromeria zumardiko karpan: **OLGETAN** taldea.





15
larunbata

Umeen
eguna



09:30: Diana Lizarrako gaiteroekin.

10:00: 8-16 urte bitartekoentzat **zezen txikien entzierroa eta enbolatuak**.

(*Eroskitik zezen plazara entzierroa).

10:30: **Artisau azoka** estalitako pasealekuan eta Gudarien plazan.

11:00-15:00: Adin ezberdinetako **umeentzat puzgarriak eta ur jolasak** Simon Berasaluze plazan (*uretako puzgarrietarako bainujantzia ekartzea gomendatzen da).

12:30: Adin guztietarako **ikuskizuna: "MIKRA"** (Berdinki Zirku Konpainia), Aldats pilotalekuan.

13:00: 2025eko abuztuaren 1etik 2026ko uztailaren 31ra arte jaioetako umei **zapi gorria** jarriko die alkateak Udal batzarren aretoan. *A los/as nacidos/as entre el 1 de agosto de 2025 y el 31 de julio de 2026, la alcaldesa les colocará el pañuelo rojo en el salón de plenos del ayuntamiento.*

14:30: **Bazkaria** zumardiko karpan umeentzat, gaztetxoentzat eta familientzat. Katering zerbitzua. Tiketak Turismo bulegoan salduko dira.

17:30: Dantzarien, danborjoleen, panderojoleen eta erraldoi txikien **kalejira** banda gazteak, dultzaineroek eta txistulariek lagunduta Luzaro eskolatik. Plaza Zaharrean dantzariak dantza egingo diote San Roke Txikiari.

18:00: **Plazako jaialdia:** danborrada, erraldoi txikien dantza eta dantzarien ekitaldia.

20:00: **Erromeria** Plaza Zaharrean: **"MUGI PANDEROA"**.

23:00-02:00: Sexu Bizi **puntu morea**, zumardi parean.

23:00: **Kontzertuak** zumardiko karpan: **"SILITIA" • "NEOMAK"**.

16
igandea

San Roke eguna





07:00: Diana musika banda eta Lizarrako gaiteroekin.

08:00: Entzierroa (18 urtetik gorakoentzat). Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).

Ondoren: Enbolatuak (16 urtetik gorakoentzat).

09:30: Herritarren agurra San Rokeri plaza Zaharrean. *Saludo del pueblo a la imagen de San Roke.*

Ezpata-Dantza Gure-Kai dantza taldearen eskutik.

Jarraian: Prozesioa San Roke ermitara.

10:30: Meza nagusia San Roke ermitan.

12:30: Aurreksua plaza Zaharrean, Gure-Kai dantza taldearen eskutik.





17:00: “JOKAI JOLASAK” umeentzat Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa-Novillada. Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).

Toreatzaileak: MANUEL LEÓN (Badajozeko zezen-eskola) eta DAVID COB (Palentziako zezen-eskola).

Sobresalientea: RUBÉN NUÑEZ (Salamancako zezen-eskola).

Ondoren: Enbolatuak (16 urtetik gorakoentzat).

Jarraian: Kalejira: musika banda, Lizarrako gaiteroak eta erraldoi eta buruhandiak.

19:00: Bertso saioa zumardiko karpan.

20:00: Kontzertua plaza Zaharrean: **“BIDE BATEZ”** erromeria.

23:00: Su festak hondartzan, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

23:30: Mariatxiak zumardiko karpan: **“MARIACHI IMPERIAL DE GUANAJUATO”**.



17
astelehena

Marriñel eguna





07:30: KARDANTXULOAK KANTUAN, plaza Zaharretik.

10:30: Jorrai dantza, Gure-Kai dantza taldea eta Kalez kale txistulari taldeen eskutik.

11:00: TXANBEZPEL kaleetan zehar.

15:00: Bazkari herrikoia Aldats pilotalekuan.

17:30: Kalejira, Lizarrako gaiteroekin eta **"ORIA"** txaranga.

18:00: Enbolatuekin entzierroa (16 urtetik gorakoentzat). Hermanos Arrizabalaga ganadutegiko zezenekin.

Ondoren: GAZTE KUADRILEN JOKOAK zezen plazan. **"ORIA"** txarangak alaiturik.

Jokoen ondoren: "HAMARRU" elektrotxaranga kalez kale.

23:00: Su festak hondartzan, Pirotecnia Vulcanoren eskutik.

00:00: Larrain dantza-Baile de "La era", plaza Zaharrean.

00:30: Kontzertuak zumardiko karpan: **"SKAREGEKASKO"** • **"MALAKIAS"**.







18
asteartea

Jaien
amaiera



07:00: Diana, musika banda eta Lizarrako gaiteroekin.

08:00: Entzierroa (18 urtetik gorakoentzat).

La Ventana del Puerto ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).

Ondoren: Enbolatuak (16 urtetik gorakoentzat).

11:00: Hamaiketakoa adinekoentzat, Adinekoen Egoitzan. *Almuerzo para la Tercera Edad, en el Hogar del Jubilado.*

11:30: Herri kirolak Berasaluze plazan:

- **AIZKORAN: Iker Vicente** (Euskal Herriko txapelduna). Kanako egurra mozten (2,50 m).
- **HARRIA JASOTZEN: Unax Iruretagoiena** (Izeta), harri mota desberdinekin.

12:30: Errekortariak zezen plazan.

Ondoren: Enbolatuak 16 urtetik beherakoentzat.

13:00: Herri kirolak plaza Zaharrean:

- **AIZKORAN: Eneko Saralegi** eta **Ugaitz Mugerza** (aizkoran eta korrika). **Eneko Saralegi** 5 metroko altueran aizkoran.
- **HARRIA JASOTZEN: Goenatxo III**, harri mota desberdinekin.

13:30: Herri kirolak Arakistain plazan:

- **HARRIA JASOTZEN: Lierni Osa** eta **Maddi Gesalaga**, harri mota desberdinekin.

13:30: "USTEKABE" txaranga kaleetan zehar.





18:00: “SARDINA FRESKUE” umeentzat ikuskizuna Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa-Novillada. La Ventana del Puerto ganadutegiko zezenekin (Tamames-Salamanca).

Toreatzaileak: NOEL GARCÍA (Salamancako zezen-eskola) eta EKAITZ MORENO (Nafarroako zezen-eskola).
Sobresalientea: RUBÉN NUÑEZ (Salamancako zezen-eskola).

Jarraian: Enbolatuak (16 urtetik gorakoentzat).

Ondoren: Erraldoien agurra plaza Zaharrear, Debako Banda eta Lizarrako gaiteroen laguntzarekin.

23:30: Danborrada Ozio-Bide elkartearen eskutik plaza Zaharrear.

Ondoren: San Rokeri zapi gorria **erantzi. JAIEN AMAIERA.**



mu si ka

kontzertuak



Abuztuak **14** • 01:00 • Zumardiko karpa
“**OLGETAN**”



Abuztuak **15** • 20:00 • Plaza Zaharra
“**MUGI PANDEROA**”



Abuztuak 15 • 23:00 • Zumardiko karpa
“SILITIA”



Abuztuak 15 • 23:00 • Zumardiko karpa
“NEOMAK”



Abuztuak 16 • 20:00 • Plaza Zaharra
“BIDE BATEZ”



Abuztuak 16 • 23:30 • Zumardiko karpa
“MARIACHI IMPERIAL DE GUANAJUATO”



Abuztuak 17 • 00:30 • Zumardiko karpa
“SKAREGEKASKO”



Abuztuak 17 • 00:30 • Zumardiko karpa
“MALAKIAS”

Manuel eta Nemesio Echaniz Aranbarri *anaiak*

Bi azkoitiar debar
Dos azkoitiarras muy debarras

Alex Turrillas Aranzeta



Familiaren erretratua. Azkoitiko parrokia-elizaren ataria. Jose Luis Echaniz eta Maria Antonia Aranbarri senar-emazteek hamaika seme-alaba izan zituzten eta haietatik bostek bide erlijiosoa hartu zuten, hiru moja eta bi apaiz, gaur egun pentsaezina dena. Borobil barruan, ezkerrean, Manuel Echaniz; bigarren erroan, Nemesio.

Retrato de familia. Portada de la iglesia parroquial de Azkoitia. De los once hijos e hijas que tuvo el matrimonio formado por José Luis Echaniz y María Antonia Aranbarri, cinco tomaron los hábitos religiosos, tres monjas y dos sacerdotes, algo impensable hoy día. Enmarcados dentro de un círculo, a la izquierda, Manuel Echaniz; en segunda fila, Nemesio.



Argazkian, berrogeiko hamarkadaren amaieran edo berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran egina ziurrenik, Manuel eta Nemesio anaiak ikusten ditugu, zirkulu batez markoztatuta, familia bilera batean.

En la fotografía, probablemente realizada a finales de los cuarenta o principios de los cincuenta, vemos a los hermanos Manuel y Nemesio, enmarcados con un círculo, durante una reunión familiar.

Manuel eta Nemesio Echaniz Aranbarri anaiak harreman berezia izan zuten Debarekin eta merezi dute debarren historiaren kontaketa tokia egitea, ahanzturan eror ez daitezen. Manuel, medikua, Azkoitia jai zen familia ugari eta tradizional batean, eta Debako udalerrian bizi izan zen 1924tik 1956ra arte.

Nemesio apaiza 1937an egon zen lehendabizikoz, Gerra Zibilaren erdian, Burgosera egindako ihesaldi traumatiko baten ondoren, *a divinis* zigortu zutenean. Deban babestu zen, bi urtez, bere anaia Manuelen etxean. Ondoren, beste hamar urte egin zituen, 1940tik 1950era, Lauzurica gotzain frankistak Arabako Andoin herrira bidali nahi izan zuenean; desterru makillatu bat saihestu zuen horrela.

Bi anaiak sentsibiltate handiko pertsonak izan ziren kulturari zegokion guztian; bereziki musikan, ziur aski euren osaba Juan Mari Echaniz Azkoitiko organo-jotzailearen eraginez, harekin ikasi baitzuten pentagramako notak irakurtzen eta, geroago, organoa jotzen.

Los hermanos Manuel y Nemesio Echaniz Aranbarri fueron dos personajes que, por su especial relación con Deba, merecen ser incluidos en los anales de la historia debarra para que no caigan en el olvido. Nacidos en Azkoitia en el seno de una numerosa y tradicional familia, Manuel, el médico, residió en el municipio debarra desde 1924 hasta 1956.

Nemesio, sacerdote, lo hizo primeramente en 1937, en plena Guerra Civil, cuando tras una traumática escapada a Burgos, con suspensión *a divinis* incluida, se refugió en Deba durante dos años en casa de su hermano Manuel. Posteriormente lo haría nuevamente durante diez años, desde 1940 a 1950; fue esquivando un destierro maquillado como destino en la localidad alavesa de Andoin, a la que el obispo franquista Lauzurica le quería enviar.

Ambos hermanos fueron personajes con una gran sensibilidad en todo lo concerniente a la cultura, incluida la música, probablemente influenciados por su tío Juan Mari Echaniz, organista de Azkoitia con quien aprendieron las notas del pentagrama y más tarde a acariciar las teclas del órgano.

Manuel Echaniz Aranbarri (1893-1956)

Manuel mediku ezagun eta maitatuenetako bat izan zen, bai Itziarren eta bai Deban. 1924ko ekainean hartu zuen Itziarko mediku titular postua, eta, ondoren, Debakoa, 1956ko uztailan hil zen arte.

1924ko ekainean, Udalak Itziarko mediku titularraren plaza lehiaketara aterata, sei hautagai aurkeztu ziren: Marcelo Fernández Mendía, Bilbokoa; V.L. Ferrer Mariño, Arronizko (Nafarroa) mediku titularra; Vicente Muriel Jimenez, Salamancakoa; Jesús Sánchez García, Madrilgoa; Faustino Zapatero Ballesteros, Valladolidekoa, eta, azkenik, Manuel Echaniz Aranbarri, Itziarko bitarteko medikua hilabete pasatxotik.

Horietako batzuen curriculumak bikaina izan arren, bikainekin eta ohorezko matrikulekin, isilpeko bozketa bidez aukeratu zuten Manuel Echaniz; izan ere, 1924ko ekainaren 24ko udal aktan irakur daitekeenez, hautagai guztien artean euskaraz hitz egiten zuen bakarra zen, eta Itziarko biztanle gehienek ez zuten gaztelaniaz hitz egiten.

Manuel Echaniz Aranbarri (1893-1956)

Manuel fue uno de los médicos más populares y queridos tanto en Itziar como en Deba, ocupando la plaza de médico titular de Itziar en junio de 1924 y posteriormente la de Deba hasta su muerte en julio de 1956.

En junio de 1924, tras sacar el Ayuntamiento a concurso la plaza de médico titular de Itziar, se presentaron seis aspirantes: Marcelo Fernández Mendía, de Bilbao; V.L. Ferrer Mariño, médico titular de Arroniz (Navarra); Vicente Muriel Jimenez, de Salamanca; Jesús Sánchez García, de Madrid; Faustino Zapatero Ballesteros, de Valladolid y por último Manuel Echaniz Aranbarri, médico interino de Itziar desde hacía poco más de un mes.

A pesar del excelente currículum de alguno de ellos, con sobresalientes y matrículas de honor en sus carreras, fue elegido mediante votación secreta Manuel Echaniz ya que, según puede leerse en el acta municipal del 24 de junio de 1924, de todos los aspirantes era el único que hablaba euskara y la mayoría de los habitantes de Itziar no hablaba castellano.



Manuel Echaniz eta bere emazte Faustina Azpiazu. Argazkia 1930eko hamarkadaren hasieran egingo zen seguru asko, Manuel Itziarko mediku titularra zenean.

Manuel Echaniz junto a su esposa Faustina Azpiazu. Seguramente la fotografía fue realizada a comienzos de la década de 1930, cuando Manuel ejercía como médico titular de Itziar.



Goiko argazkian, ziurrenik joan den mendeko berrogeiko hamarkadan egina, Lasturko San Nikolas plazan ikusten dugu harmonioa jotzen, instrumentuaren inaugurazio egunean, jende ugariaren aurrean. Harmonioaren gainean, aterki bat, botila bat eta baso bat ardo, seguru asko teklaturia epeltzeko. Irudiak zintzo islatzen du azkoitiarraren izaera: herriko gizona.

En la fotografía, probablemente realizada en los años 40 del pasado siglo, le vemos tocando el armonio en la plaza de San Nicolás de Lastur el día de la inauguración del instrumento ante un numeroso y expectante público. Sobre el armonio, un paraguas, una botella y un vaso de vino, seguramente para templar el teclado. La imagen refleja fielmente el carácter del azkoitiarra: un hombre del pueblo.

Denborak justifikatuko zuen aukeraketa hura, Manuel Echanizek, mediku eta pertsona gisa, herritar guztien errespetua, adiskidetasuna eta maitasuna irabazi baitzituen.

Bere anaia Nemesio bezala, Manuel ere gizon jantzia izan zen, polifazetiko, umore sen paregabe eta lagunkoia zuena, inor gutxi bezala.

Itziarko medikua zela, makina bat aldiz ibili zen orduko pista ia igaroezinetan, batzuetan asto edo mandoren baten gainean, baserrietako gaixoak artatzeko. Eta beti bere umore-sen xelebrearekin; behin baino gehiagotan, botikak baino eraginkorragoa izan zen, seguru asko, bere umore hura.

Oraindik adineko pertsonak azkoitiarrari buruzko pasadizo barregarriak gogoratzen dituzte. Gogoratuenetako bat Itziarko mediku izan zen garaikoa da.

Diotenez, egun batean, Echanizek bat-batean artatu behar izan zuen baserritar bat. Azkoitiarrak ez zuen arkatzik edo errezetarik eskura une horretan, eta klarionaz apuntatu zuen errezeta ate batean, baserritarrari esanez: zoaz farmaziara eta eman diezazutela hau. Baserritarra ate eta guzti agertu omen zen botikan, sendagaiaren bila.

El tiempo justificaría aquella elección, pues Manuel Echaniz, como médico y como persona se ganó el respeto, la amistad y el cariño de todo el municipio.

Al igual que su hermano Nemesio, Manuel fue un hombre culto, polifacético, con un sentido del humor único y sociable como pocos.

Siendo médico de Itziar, en infinidad de ocasiones recorrió las casi intransitables pistas de entonces, a veces a lomos de un burro o un mulo, para atender a los enfermos de los caseríos. Y siempre con su peculiar chistoso sentido del humor que en más de una ocasión seguramente fue más efectivo que las medicinas.

Todavía las personas de edad avanzada recuerdan graciosas anécdotas sobre el azkoitiarra. Una de las más recordadas corresponde a su época como médico de Itziar.

Cuentan que cierto día Echaniz atendió de forma improvisada a un baserritarra. No debía tener el galeno azkoitiarra lápiz ni recetas en ese momento y apuntó con tiza la receta sobre una puerta, diciendo al baserritarra: vete a la farmacia y que te den esto. Se dice que el baserritarra se presentó en la farmacia con la puerta en busca de su medicina.



1920ko hamarkadan egindako argazkia, Manuel Echaniz Itziarko mediku titularra zenean. Atzealdean, eskuinean, mediku azkoitiarra Faustina emaztearekin eta semeekin bizi izan zen "Visi"ren etxea ikus daiteke. Etxearen behealdean, bi arkuren azpian, Visi taberna ezaguna.

Fotografía realizada durante la década de 1920, cuando Manuel Echaniz ocupaba la plaza de médico titular de Itziar. Al fondo, a la derecha, se puede ver la casa del "Visi" donde el médico azkoitiarra vivió con su esposa Faustina y sus hijos. En los bajos de la casa, bajo dos arcos, el popular bar Visi.

Ni neu, oso ume nintzela, bere pazienteetako bat izan nintzen. Haren kontsulta (garai hartan ez zegoen anbulatorio) "Visi"ren etxean zegoen, Portu kalean; hirugarren edo laugarren solairuan, nire ustez. Han bizi izan zen Faustina Azpiazu emaztearekin eta bertan jaio ziren Jose Luis eta Manolo semeak ere.

Gerra zibilean, 1937an, **"12 hilabeteko soldata erdiko zigorra"** ezarri zion Udal frankistak, bere ideia nazionalistak zirela eta. Bitxia bada ere, arrazoi berberengatik zigortutakoen artean zeuden Eduardo Barrera botikaria eta Jose Sagarna, argiaren eta uraren arduraduna.

Nemesio Echaniz Aranberri (1899-1982)

Nemesio poeta, antzerkigile, itzultzaile eta musikari garrantzitsua izan zen, eta XX. mendeko euskal kulturaren berritzaile handienetako bat. Francisco Javier Lauzurica gotzainak, garai hartan Gasteizko administratzaile apostolikoa zenak, erregimenarentzat deserosoa zelako, Gipuzkoatik urundu eta Arabako Andoin herrixkara bidali nahi izan zuen. Horren aurrean, Nemesiok osasun arazoak alegatu zituen Egoitza Santuaren aurrean, baina ez zioten jaramonik egin. Orduan, elizbarrutiarekin zuen harremana hautsi eta berriz ere bere anaiarenera, Debara, itzuli zen.

Yo mismo, siendo muy niño, fui uno de sus pacientes. Su consulta (por entonces no había centro ambulatorio) se encontraba en su propia vivienda en la casa del "Visi", en la calle del Puerto; creo recordar que en el tercer o cuarto piso. Allí vivió con su esposa Faustina Azpiazu y allí nacieron sus hijos José Luis y Manolo.

Durante la guerra civil, en 1937 fue sancionado a **"12 meses a medio sueldo"** por el Ayuntamiento franquista debido a sus ideas nacionalistas. Curiosamente, entre los sancionados por idénticas razones, también con la misma pena, estaban el farmacéutico Eduardo Barrera y José Sagarna, encargado de luz y agua.

Nemesio Echaniz Aranberri (1899-1982)

Nemesio fue un importante poeta, dramaturgo, traductor y músico, siendo considerado como uno de los grandes renovadores de la cultura vasca del siglo XX. Cuando el obispo Francisco Javier Lauzurica, por entonces administrador apostólico de Vitoria, quiso alejarle de Gipuzkoa y enviarlo al pueblito alavés de Andoin por ser considerado un elemento incómodo para el régimen, Nemesio alegó ante la Santa Sede problemas de salud, pero su solicitud fue desatendida, rompiendo su relación con la diócesis y regresando nuevamente a Deba, donde residía su hermano.

Goikoek, ordea, parrokiako apaiz lagunkide gisa aritzea galarazi zioten eta Karmeldar Oinutsen asiloko kapilau gisa etorri zen. Apezpiku frankistak ez zuen etsi bere vendetta partikularrean: **soldatarik gabe**, karitatetik bizitzera zigortu zuten. Bere bekatua? Arlo guztietan euskaraz idaztea eta euskal kultura, ahitzeraino, sustatzea.

Zalantzarik gabe esan daiteke, sotana eraman arren (horrek gerraosteko urteetan adierazten zuenarekin), Nemesio eboluzionatzen joan zela bere familiarengandik jasotako kontserbadurismo erlijiosotik progresista izatera iritsi arte, ez bakarrik gai soziokulturaletan, baita sexu moralari buruzko gaietan ere. Gizon ausarta izan zen, ez zen inoiz isildu erregimenaren zapalkuntza salatzeke. Gaur egun, oraindik ere, militar batzuekin izandako ika-mikak entzun daitezke, eta Gobernadore Zibilarekin gurutzatutako karta etengabeak ere bai, "maitasun berezia" baitzien guztiei.

Deban egin zituen hamar urteko egonaldi "ofizialean" Amillagako etxean bizi izan zen, hondartzaren eta zaharren egoitzaren ondoan (bertako kapilaua zen). Pentsa dezakegu egile gisa erabili zuen "**Amillaitz**" ezizena hortik datorrela, inguru horretako arroak, gaur egun "revuelta de pólvora" modura ezagutzen ditugunak, antzina, "Amillaitz" bezala ezagutzen ziren eta; hau da, Amillagako haitzak.

1940tik 1950era egon zen bigarren aldiz, euskal kulturaren eta euskararen sustapenaren inguruko guztian aktiboki laguntzen. Bertan, Alostorrea antzerki taldea sortu zuen, "Gabon-Gabonetan" antzezlanarekin estreinatu zena, eta zentsurarekin eta agintarien etengabeko salaketekin borroka gogorak izan ondoren, desegin behar izan zena.

Urte batzuk geroago, 1960an, Donostian zegoela, "Centro de Jóvenes" elkarteak argitaratutako "DEVA" aldizkarian kolaboratu zuen. Aldizkari horren lehen alean "Deba'ko Gazteak eta Euskera" izeneko artikulua idatzi zuen.

Pero no lo hizo como coadjutor de la parroquia, sino como capellán del asilo de las Carmelitas Descalzas. Además, la vendetta del obispo franquista no se hizo esperar: **castigado sin sueldo**; a vivir de la caridad. ¿Su pecado? Escribir y promocionar hasta la extenuación la cultura en euskera en todos los campos.

Sin duda alguna, puede decirse que a pesar de llevar sotana, con lo que ello representaba en los años de posguerra, Nemesio fue evolucionando desde el conservadurismo religioso heredado de su familia, hasta llegar a ser un progresista no solo en temas socioculturales sino incluso en temas de índole referente a la moral sexual. Fue un hombre valiente que nunca se cortó un pelo en denunciar la opresión ejercida por el régimen. Aún hoy, resuenan sus disputas con algunos militares y el continuo cruce de cartas con el Gobernador Civil por los que, también hay que decirlo, debió sentir un "especial cariño".



Nemesio Echaniz Aranberri.

Durante sus diez años de estancia "oficial" en Deba vivió en la casa de "Amillaga", junto a la playa y el asilo de ancianos del que era capellán, lo que nos hace suponer que el seudónimo "**Amillaitz**" que utilizó como autor proviene de esa circunstancia. Las rocas de esa zona, en lo que hoy llamamos "revuelta de pólvora", antiguamente fueron conocidas como "Amillaitz"; es decir, las rocas de Amillaga.

En su segunda estancia en Deba permanecería desde 1940 a 1950, colaborando activamente en todo lo que a cultura vasca y promoción del euskera se refiere. Fue aquí donde creó

el grupo de teatro Alostorrea, que se estrenó con la obra "Gabon-Gabonetan", y que tras duras luchas con la censura y las continuas denuncias de las autoridades tuvo que disolverse.

Años después, estando ya en Donostia, Nemesio aún recordaba a Deba y a los innumerables amigos que aquí hizo. En 1960 colaboró con la revista "DEVA", editada por el "Centro de Jóvenes", en cuyo primer número escribía un artículo titulado "Deba'ko Gazteak eta Euskera".



Argazki interesgarria, Francoren tropek "Bilboren askapena"ren urteurrena ospatzeko desfilean ateratakoa. Ezkerrean, Lauzurica gotzaina besoa gora. Argazkian agertzen diren pertsonaiekin "toreatzea" egokitu zitzaion Nemesio Echanizi. Interesante fotografía realizada durante el desfile con motivo del aniversario de la "Liberación de Bilbao" por las tropas de Franco. A la izquierda, el obispo Lauzurica brazo en alto. Con personajes como los que aparecen en la foto le tocó lidiar a Nemesio Echaniz.

Donostian bizi zela, aitzindaria izan zen irrati bidezko kanalak euskararen erabilera zabaltzeko erabiltzen, bai antzezlanen bidez (irrati-nobelen antzera), bai bes-telako irratsaioen bidez. Aitzindaria izan zen eus-kara irakasteko metodo ber-ritzaileetan ere. 1961ean, CCC urrutiko formakuntza akademia ospetsuak, "**Cur-so de Vascuence**" euskara ikastaro bat argitaratu zuen diskotan, Nemesiok berak egina.

1970eko hamarkadan, De-bako herriak omenaldi bat eskaini zion Monreal jate-txean egin zen bazkariarekin. Postreetan, "Ezbai" musika talde debarrak hainbat abes-ti jo zituen, horietako batzuk Nemesiok berak konposa-tuak; tartean "Anttoni eta Antton" herrikoia.

Estando residiendo ya en Donostia, fue un pionero que utilizó los medios radiados para divulgar el uso del eus-kerera, bien mediante obras de teatro (algo así como las radionovelas) u otro tipo de programas radiados. Tam-bién fue un pionero en la enseñanza del euskera me-diante métodos por enton-ces novedosos. En 1961, la prestigiosa academia de for-mación a distancia CCC pu-blicaba un curso de euskara en discos "**Curso de Vas-cuence**", cuyo autor fue el propio Nemesio.

En la década de 1970 el pueblo de Deba le tributó un homenaje, con su correspon-diente banquete en el res-taurante Monreal. A los pos-tres, el grupo musical de-barra "Ezbai" interpretó va-rias canciones, algunas de ellas compuestas por el pro-pio Nemesio, entre ellas la popular "Anttoni eta Atton".



1951n Nemesio Echanizek Amillaitz ezizenarekin argitaratutako Kanta-Kantari kantu bildumaren alea. Ejemplar del Kanta-Kantari, colección de canciones, editado en 1951 por Nemesio Echaniz bajo el seudónimo de Amillaitz.



ARGAZKI ZAHARRAK



60. hamarkadaren bukaera. "Día del Veraneante". Ezkerretik eskuinera: Aguirre, Javi Olaso, Marga, M^a Carmen Arostegui, Nieves Iriondo, Toncho Nava, Carlos Lastra.



80. hamarkada. Entzierroa baino lehen. Argazkiaren erdian, Javi Lizaraburu, Jose Mari Sorazu, Josetxo Arizmendi.



1969-08-18. Mariñel eguna. Ezkerrean, Juanjo Basurto; zaldiaren atzean, Jesus Alba; zaldi gainean, Jose Mari Ibarzabal "Kalitxe"; eskuinean, Juan Luis Peña donostiarra.



70. hamarkada. Amaia Unanue, Jose Mª Rodriguez "Txiki", Nere Unanue, Fernando Goikoetxea, José Manuel Prieto "Litri".



80ko hamarkadaren hasiera. Besteak beste, Martin Aristi, "Txapasta", Jose Ignacio Landa, Ion Esturo, Jesús Pérez, Bosco Urbieto.



XXI. mendearen hasiera. José Manuel Prieto "Litri", Gregorio Urkaregi, Jesus Mari "Azkoitxi".



1986-08-17. Goian: Fernando Urain, Josu Azkoitia, Gotzon Egaña (zaldian), Jose Luis Lazkano, Txarli Duñabeitia, Joseba Etxeberria. Behean: Luis Mari Salegi, Karmelo Ostolaza.



1986-08-17. Iñigo Aldabaldetrekua, Bosco Urbieto, Iñaki Arrizabalaga "Txarturi" eta Jon Esturo.



Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Rafa Rodriguez, Natxo Artamendi, M^a Carmen Galarraga, Eulali Iriondo, Mikel Iriondo, Miriam Aldabaldetrecu, Patri Zarraua, Jose M^a Urcelay. Erdiko ilaran: Juan Miguel Esnaola "Fraile", xxxxx, Tere Aperribay, Xabi Deba, Alex Zarraua, xxx. Beheko ilaran: xxx, José Ignacio Landa, Jose Alberto Urbieto, Javi Ocaña.



*1986. Antxon Etcheverry, Jose Luis Pascual, "Tito" Alvarez, Alfredo Puellas.
Beheko lerroan: Antonio Beitia, Jose Mari Ibarluzea.*

San Roke 2025























2025EKO ZEZEN-FESTAK

FESTEJOS TAURINOS 2025

Eduardo García Elosua

